

## 2023ko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 6,7 egin dute gora Euskal AEn

### Inportazioek % 1,1eko hazkuntza izan dute

2023ko lehen hiruhilekoan, esportazioen prezioek % 6,7 egin dute gora, 2022ko hiruhileko beraren aldean, Eustaten datuen arabera. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, igoera % 2,6koa izan da.

Inportazioen prezioek joera bera izan dute; izan ere, % 1,1 egin dute gora urte artean, eta % 0,3, 2022ko lehen hiruhilekoaren aldean.

Esportazio “energetikoen” prezioek % 8,3 egin dute gora, aurreko urtearekin alderatuta, eta “ez-energetikoenek”, % 7,3. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, ondasun “energetikoen” prezioek % 7,7 egin dute gora, eta “ez-energetikoenek”, % 2,9.

**Inportazioen** kasuan, produktu “energetikoen” prezioen indizeak % 6,1 egin du behera urte arteko tasan, eta “ez-energetikoenak”, % 3,3 gora. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, prezio “energetikoenek” % 1,4 egin dute behera, eta “ez-energetikoenek”, % 1,2 gora.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, helburu ekonomikoaren arabera (%). 2023/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	<b>2,6</b>	<b>6,7</b>	<b>0,3</b>	<b>1,1</b>
Energiazko gaiak	7,7	8,3	-1,4	-6,1
Energiazkoak ez diren gaiak	2,9	7,3	1,2	3,3
Kontsumo-ondasunak	3,3	13,2	0,0	-0,1
Kapital-ondasunak	1,6	3,8	3,3	13,7
Bitarteko ondasunak	2,5	5,8	0,1	0,4

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean

(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2023ko Ekainaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Ondasunen **helmuga ekonomikoaren** araberako sailkapenari dagokionez, Kontsumo-ondasunen, Tarteko ondasunen eta Kapital-ondasunen esportazioen prezioek aurreko urtearekin alderatuta izan duten igoera nabarmentzen da (% 13,2, % 5,8 eta % 3,8, hurrenez hurren). 2022ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta, egiaztatzen da, era berean, prezioek gora egin dutela hiru sektoreetan: Tarteko ondasunek % 2,5 egin dute gora, Kontsumo-ondasunek % 3,3 eta Kapital-ondasunek % 1,6.

Analisia inportazioetara bideratuta, urte arteko konparatiban behera egin duten bakarrak Kontsumo-ondasunen prezioak direla ikusten da (-% 0,1). Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, % 0,0ko tasa izan dute. Bestalde, beste bi ondasun-motak, Tarteko ondasunak eta Kapital-ondasunak, igo egin dira aurreko urtearekin alderatuta, % 0,4 eta % 13,7, hurrenez hurren, bai eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta ere, % 0,1 eta % 3,3, hurrenez hurren.

Esportazioak zer **arlotan** bideratzen diren kontuan hartuta, prezioek, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, gora egin dute eremu guztietan. ELGAN % 2,2 egin du gora, EB-28n eta Eurogunean % 2,1 eta Munduko gainerakoan % 4,2. 2022ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, joera errepikatu egin da: igoera esanguratsuak izan dira arlo ekonomiko guztien prezioetan, eta Munduko gainerakoa eta ELGA nabarmentzen dira (% 7,1 eta % 6,7, hurrenez hurren); gainerako eremuak daude ondoren, hurbil. Hala, EB-28k % 5,9ko hazkuntza-tasa izan du eta Euroguneak % 5,5ekoa.

## Euskal AEko kanpo-merkataritzako balio bateratuaren indizeak, arlo ekonomikoaren arabera (%). 2023/I

	ESPORTAZIOAK		INPORTAZIOAK	
	t/t-1	t/t-4	t/t-1	t/t-4
<b>Indize orokorra</b>	2,6	6,7	0,3	1,1
Euro eremua	2,1	5,5	-0,6	3,5
EB-28	2,1	5,9	-1,3	2,0
ELGE	2,2	6,7	-0,7	0,4
Munduko besteak	4,2	7,1	2,9	3,3

(t/t1) Behatutako azken hiruhilekoaren aldakuntza-tasa aurreko hiruhilekoaren aldean


(t/t4) Behatutako azken hiruhilekoko urte arteko aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren aldean

Data 2023ko Ekainaren 30a

Oinarria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

Inportazioen kasuan, arlo geografiko guztiek izan dituzte prezioen jaitsierak, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Munduaren gainerakoak izan ezik, % 2,9 egin baitute gora. Aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, tasak positiboak izan dira arlo ekonomiko guztietan, eta Munduko gainerakoa eta Eurogunea nabarmentzen dira (% 3,3 eta % 3,5).

## Euskal AEko kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Kanpo-merkataritzaren unitate balioaren indizeak-UBI

### Informazio gehigarako:

[Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.eus](mailto:servicioprensa@eustat.eus) Tlf: 945 01 75 62